


Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Gorputz eta  
kirol jarduerak

# Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntzako goi mailako teknikaria



Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtza  
El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

# Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntzako goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

### Gorputz eta kirol animazioa

- Gorputz eta kirol animazio proiektuak osatzea, kudeatzea, sustatzea eta ebaluatzea.
- Gorputz eta kirol animazioko ekintzak, jarduerak eta jolasak antolatzea eta kudeatzea mota guztietako erabiltzaileentzat.
- Animazio turistikoko jostetarako xedea duten kultura jarduerak antolatzea eta gauzatzea.
- Animazio xedea duten gau jaialdiak eta ikuskinak antolatzea eta garatzea.
- Lehen esku-hartzea egitea istripuan edo larrialdi egoeran.

### Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza jardueren zuzendaritza eta kudeaketa.

- Aisialdirako hezkuntza proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.
- Haur eta gazteen bilakaeraren ezaugarriak eta portaera kontuan hartuz talde prozesuetan jardutea.
- Animazio teknika eta baliabide hezigarriak baliatzea aisialdian.
- Monitore taldeak osatzea eta horiek haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza proiektuetan dinamizatzea eta ikuskatzea.

### Igeriketa jarduerak

- Igeriketa jarduerekin lotutako irakaskuntza jarduerak eta oinarrizko egokitze fisikoko jarduerak programatzea.
- Igeriketa jardueretako oinarrizko ikaskuntza eta egokitze fisikoa zuzentzea.

### Egokitze fisikoa taldean, musikaz lagundurik

- Erabiltzailearen egoera fisikoa, biologikoa eta motibazioa zehaztea.

### Animazio turistikoa

- Aisialdi egoeretan taldeak sortu eta dinamizatzea.
- Animazio turistikoa jarduera ludikoak eta gorputz eta josteta jarduerak antolatzea eta garatzea.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

# Gorputz eta kirol jarduerak

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau eskuratzen dutenak bi eremu hauetan garatu ahal izanen dute: eremu publikoan edo izaera pribatuko erakundeetan, kirol irakaskuntza, egokitze fisikoa, gizarte eta kirol arloko inklusio, eta josteta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa handi, ertain eta txikietan.

Haien jarduna zenbait alorretan gauzatzen da, alegia, gizarte animazioan, testuinguru eta adin desberdinetako gorputz eta kirol irakaskuntzan, animazio turistikoan eta haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza aisialdi jardueretan, eta jarduerak planifikatzeaz, antolatzeaz, dinamizatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuz.

Halaber, titulu honen jabe direnek antolatzen ahal dituzte suerte guztietako erabiltzaileendako eta turismo aktiboko enpresendako gorputz eta kirol jardueretako lehiaketa ez-ofizial eta ekitaldi txikiak.

Haien jarduna gauzatzen da ohiko zein ez-ohiko kirol instalazioetan eta natura ingurunean, baita instalazio turistikoetan ere, hala nola hoteletan, bainuetxeetan, turismo kanpamenduetan eta oporraldietarako hirietan.

Haiek laneratzten dituzten sektore produktiboak dira kirola, turismoa, aisialdia eta haur eta gazteen hezkuntza aisialdia.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenal hauek dira:

- Gorputz eta kirol jardueretako irakaslea (igeriketa, atletismoa, saskibaloia, boleibola, tenisa, eta padela, besteak beste).
- Gorputz eta kirol jardueren eta josteta jardueren animatzailea.
- Gizarte eta kirol inklusioeko jardueren animatzailea.
- Instalazio turistikoetako gau jaialdietako eta ikuskizunetako animatzailea.
- Instalazio turistikoetako aire zabaleko josteta jardueretako animatzailea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

- Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.
- Animazio turistikoko jolasak eta gorputz eta josteta jarduerak.
- Banakako gorputz eta kirol jarduerak.
- Taldeko gorputz eta kirol jarduerak.
- Gorputz eta kirol jarduerak irakasteko metodologia.
- Ingelesa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.
- Taldearen dinamizazioa.
- Gizarte eta kirol animazioko plangintza.
- Tresna bidezko gorputz eta kirol jarduerak.
- Gizarteratzeko gorputz eta kirol jarduerak.
- Enpresa eta ekimen ekintzailea.
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntzako proiektua.
- Lantokiko prestakuntza.
  
- Kirol animazioko jardueretako koordinatzailea eta zuzendaria.
- Enpresa turistikoetako edo erakunde publiko zein pribatuetako kirol instalazioetako gorputz eta kirol jardueretako koordinatzailea.
- Haur eta gazteendako denbora libreko hezkuntza jardueretako koordinatzailea eta zuzendaria.
- Eskola eremuko curriculumaz kanpoko jardueretako koordinatzailea eta zuzendaria.
- Haur eta gazteendako denbora libreko hezkuntza proiektuen arduraduna eta zuzendaria.
- Kanpalekuen, gazte aterpetxeen... koordinatzailea eta zuzendaria.
- Denbora libreko monitorea.
- Ur instalazioetako soroa.